

EUSKALTZAINDIA / BILBO ZAHARRA
EUSKALTEGIA: *Hitzarmena*

Jose Luis Lizundia jauna, agur t'ardi:

Honekin, irailaren 18an, zeure bulegoan, Pedro Alberdi eta hirurok izandako bileran aipatutakoa burutzeko asmoa daukagu.

Bilbo Zaharra Forum, euskal literatura eta kulturaren inguruko TOPALEKUA bultzatu nahian antolatuko du Bilbo Zaharra Euskaltegiak.



Peru Alberdi, Bilbo Zaharra Forum-eko ordezkaria eta
José Luis Lizundia, Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzailea.

* * *

Bilbo Zaharra euskaltegiak eta Euskaltzaindiak *hitzarmena* sinatu dute, Bilbo Zaharra Forum izenarekin egiten diren jardunaldietan euskaltegiak Akademiaren egoitza, Bilbon, erabil dezan.

Euskal kulturari buruzko kezka bere-berea du *Bilbo Zaharra Euskaltegiak* hasiera-hasieratik. Ezin bestela izan, nahita ere, euskal kulturaren eremua baita, hala sortzez nola egitez, euskaltegiari dagokion jardun-tokia. Ildo horretatik, urte hauetan guztietan makina bat saio, lan-talde, mahainguru eta mintegi eratu eta abiarazi ditugu, euskal kulturaren arazoak hizpide.

Gure ikastetxetik pasatako idazle gonbidatuek zerrenda luzea osatuko lukete: Federiko Krutwig, Jon Juaristi, Mario Onaindia, Joseba Sarrionandia, Alfonso Sastre edo Emilio López Adán, besteak beste.

Nolanahi ere, gu ez gaude atzera begira, aurrera baizik. Etorkizunak kezkatzen gaitu. Eta hala, aurtan bi ekitaldi aurkezten dugu *Euskal kulturaren ajeak eta literatura* izenburupean. Gonbidatutako idazleek ez dute aitzakiarik. Koldo Izagirre zein Andu Lertxundi punta-puntako idazleak dira, ez bakarrik Euskal Herriko kultura giroan, baita Espainiakoan ere.

Bi idazle hauek jarraipena emango diote, aurretik izandako Bernardo Atxaga, Ramón Saizarbitoria eta Lourdes Oñederrak esandakoari.

Eta hizkuntza eta Literaturaren arloarekin batera badira beste batzuk ere jorratu behar ditugunak, hala nola, kirola, artea, musika...

Arlo honi lotuta Iñaki Lasa aurkeztu nahi dugu ipuin-saioak eskainiko dituelarik.

* * *

Bilbo hirian kultura-eragile izan nahi honetan, hauxe da, beraz, urritik abendura bitartean proposatzen ditugun jarduerak:

- urriaren 31n, Koldo Izagirre.
Gaia: «Menperatuon idazketa»
Ordua: Arratsaldeko 7,30etan.
- azaroaren 28an, Andu Lertxundi.
Gaia: «Euskal kulturaren ajeak eta literatura»
Ordua: Arratsaldeko 7,30etan
- abenduaren 12an, Iñaki Lasa.
Jarduera: Ipuin-saioa
Ordua: goizez eta arratsaldez. Zehaztekotan.

Halaxe, bada, kultura jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko *hitzarmena* egiteko aukera izango dugulakoan,

Ez adiorik.

Bilbo, 2002ko urriak 4.

Aitor Argarate,

Bilbo Zaharra Forum

EUSKALTZAINDIA / BILBO ZAHARRA EUSKALTEGIAREN ARTEKO HITZARMENAREN AURKEZPENA

Bilbon, egoitzan, 2002-X-29an

*Jose Luis Lizundia,
idazkariorde-kudeatzailea*

Egun on!

Nire eginkizuna, agurtzeaz gain, anfitrioi gisako lana da, oso pozik egiten dudana. Bilbo Zaharra Euskaltegiarekin akordio batera iritsi baikara, Zuzendaritzak, hil honen 10ean onartua, zeinetan erabaki dugun *Bilbo Zaharra Forumarekin* kidekatuz, gure azpiegitura eskaintzea, euskalategi horrek aspalditik, gure egoitzan, egiten diharduen lanari modu formal bat emateko. Askotan erabili dute egoitza hau. Alokatzeko modu hori amaitu da, eta, orain, elkarrekin kidekatuz, zenbait hitzaldi, ikastaro eta beste, egingo dituzte egoitzaren areto honetan. Eta gai aldetik, euskara, euskalgintza, izango da, noski, euskalgintzan sartzen dira baita ere, Literatura, Antzerki eta antzerako alorrak.

Alberdi jaunak emango ditu programaren xehetasunak. Guk, zuokin, kazetariokin, dugun informazio konpromiso hori gustura betetzen dugu. Bestalde, badakizue, guk, Bilboko Udalarekin ere hitzarmen bat sinatu dugula, bertan ere agertzen da, egoitza hau, Bilboko Udalari ere eskaintzea, beti ere, euskara gaiak jorratzeko. Uste dut, kokagune garrantzitsua dela, ez bakarrik, Euskal Herriaren hizkuntza Akademia delako. Batzuetan, Akademia esaten denean, batzuk pentsatzen dute, Real Academia Española dela bakarrik. Estatu honetan lau hizkuntza Akademia dira. Gainera, Bilbon eta Euskal Herrian dagoen bakarra hau da. Uriaren tokirik hoberenean, Plaza Barrian, euskalgintza plazaratzeko.

Beraz, ez noa ongi etorria ematen Peru Alberdi eta Aitor Argarate adiskideei, lehendik ere gure etxean ditugulako. Beraiek erabiltzen duten egoitza akademikoa, orain modu formal batez, akordio batera iritsi garelarik.